**ERREPORTAJEA** • HEZKUNTZA BEREZIAREN TRATAMENDUA ELGOIBARREN • **GEHIGARRIA** EUSKALTEGIETAN ARIGERA
• **KULTURA** SINUOSE TALDEAREN ESTREINALDIA GAUR, BARIKUA, HERRIKO ANTZOKIAN, 22:15ean

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA • 2002ko otsailaren 8a/X. urtea/392. zkia



## SINUOSE: HERRIKO ARTISTEN KOLEKTIBOA

# "Hemendik aurrera herrixan kultur ekitaldixak egin nahi ditxugu"




ITURAIN & ASOC.
ZERBITZU INIVIOBILIARIO INTEGRALAK
CONSULTING GROUP

# ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

## Leku Ederren,



- ETXEBIZITZAK
  - . 2, 3 eta 4 logelo
  - . Egongela-jangela Sukaldea
  - . 2 boinugela.



- GARAJE PLAZA ITXIAK
- KOMERTZIORAKO LOKALAK
- KALITATEZKO ERAIKUNTZA
- ORDAINKETARAKO ERRAZTASUNAK

---

**PROMOZIOA eta SALMENTA Muno, S.A.**
Trenbidearen Zumardia 13-15 • AZKOITIA
Tel. 943 157 007 • 609 473 933

**INFORMAZIOA Iturain & Asoc.**
San Frantzisko, 44 Tel. 943 748 801
Tel. 670 412 073



## Segi

Herri Batasuna, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Xaki, Jarrai, Haika, Ekin, Egin, Ardi Beltza, AEK, Ikastolak...eta aste honetan, Askatasuna eta Segi.

Alai dakusat Frankoren aurpegia hilobitik oinordekoen lanari begira:

"Zanpatu itzazue euskal herritarren nortasuna, hizkuntza, izaera iraultzaile eta borrokalaria, elkartasuna...Giltzaperatu aurre egiten digutenak, eta sinestarazi iezaiezue besteei haiek direla etsaiak. Epelenak geureganatu itzazue. Borrerook biktima bezala agertu behar dugu. Euskaldunak haien artean banatuta mantentzen ditugun bitartean, garaipena geurea baita".

Lerro hauek idazten ditudan bitartean, poliziak sukarrak jota ohean zegoen gazte bat Segiko partaide hutsa izateagatik atxilotu duela entzun dut irratian. Argitaratzen direnean berriz, Iruñean gose greban daudenak, beharbada, Madrilgo komisaldegi batean egongo dira. Oraingoan ez da "nahikoa da" dioen kontzentraziorik egongo, ezta manifestazio bateratu jendetsurik ere. Zuk eta besteek, beste behin, anai-arrebak, auzokoak, tagunak, bakarrik utziko dituzue. Haiek nahi duten bezala.

Oharra: Duela hilabete batzuk gai honi berari buruz idatzi nuen. Urte batzuk barru egiten badut, zutabe osoa beharko al dut izenak idazteko?

**17.anpatu itzazue euskal herritarren nortasuna, hizkuntza,, izaera iraultzaile eta borrokalaria, elkartasuna..."**

Lorea Perez de Albeniz



## Elgoibarren ikasi eta bizi

Ez da makala egun Elgoibarren haurrak daukaten ikasteko eskaintza: ongi prestatutako eskolak, eskoletatik kanpoko kirol, musika, dantza eta abarreko jarduerak. Ondoren, ogibidea ikasteko orduan, urte batzuetatik hona,EHI, IMH eta Gestio Eskolarekin asko aberasten da eskaintza, bai tekniko arlotik eta baita gestiogintza aldetik ere. Elgoibartik irten gabe, gazteei bertan bizitzeko aukera paregabea eskaintzen zaie. Bestalde, gure herriko enpresek, langileak behar dituztenean, beti ere, Elgoibarkoa edo ahalik eta ingurukoagoa izatea nahiago dute. Aspaldian ikusi ahal izan dudanaren arabera, Elgoibarren ez dago enpresek behar duten adina ikasle. Zer gertatzen da? Gazteek ez al dute gure herriko enpresetan aurkituko duten lan mota kontuan hartzen ikasteko orduan? Gurasoek edo irakasleek ba al dute honen kontzientziarik gazteak bertan ikastera animatzeko? Gure haurrak neskak badira, animatzen al ditugu ogibide teknikoetara? Eta enpresa mundua neskak bereganatzeko prest al dago? Galdera asko dira eta erantzunak guztien esku daudela uste dut. Ahalegin piska batekin, gure gazteak bertan ikastera animatu eta ondorioz, ogibidea bertan aurkituz, Elgoibar bizirik mantentzen saiatzea merezi duela uste dut.

**"Gazteak bertan ikastera animatu eta Elgoibar bizirik mantentzen saiatzea merezi du"**

Ez pentsa, ordea, Eigoibartik kanpo dagoenarekin ez dudala ezer jakin nahi! Aberasgarria eta beharrezkoa da gure zulotxotik irtetzea, munduan zer dagoen jakitea. Segurasko hau egiten badugu, bertakoa ere gehiago apreziatuko dugu. Nork ez du izan gaztetan kanpora ikastera joateko "abentura" nahirik? Zerbait desberdina probatzeko gogoa? Egungo teknologia berriek (internet sarea, eta abar) mundu zabalera leiho ezinbestekoak ditugu. Gure ikastetxeek eta enpresetatik birtualtasun hau aprobetxatuz, gauza interesgarriak eta baliogarriak egin ditzakete eta honela baita kanpotarrak Elgoibarrera bizt tzera erakarri ere!

**Edurrie Bilbao**

1110tZ MotZ ........................................ 6
gehigarria ........................................ 13
kiROlAk ........................................ 22
aGencla ........................................ 28

## Urruzunoren begi eikutua

# Inauteriak



Aita-semeak tabernan daude
ama-alabak josten,
egunero bezala dira ikusiko
elkarren arteko goxotasun herezi hortan.
Olentzeroren mezuen arteko bat,
berriro datorkigu inauterietan!
Jostunak eta ez jostunak,
mutiko gozo eta gazte euskaldunak,
zaitezten jantzi inauteri hauetan,
eta goiko Jaunaren hitzak bete daitezela!

**Joseba Esnaola**

## ESKER MILA DENOI

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizue Santa Ageda bezperako eskean parte hartu zenuten guztioi. Eskerrak, bereziki, baserritarroi, aurten ere zuen baserrietako ateak zabaldu eta hain eskuzabal hartu gaituzuelako. Eskerrak, baita ere, San Migeleko soziedadekoei, gaueko 23:30ak arte zain egon eta afari ederra eman zigutelako; eskerrak Nava inprentakoei, aurten ere furgoneta laga digutelako; eta, azkenik, eskerrak antolatu genituen bi taldeetan parte hartu zenuten bertsolari (Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza), trikitilari (Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantza) eta korukoei, zuek gabe ezingo baikenion ohitura zaharrari eutsi. Bederatzi urte dira ohitura zahar hau berreskuratzeari ekin geniola, eta, baserritarren artean duen estimazioa ikusita, datorren urtean ere baserri atarietan izango gara kantuan eta eskean. Gainera, hurrengoa 10. urteurrena dela jakinda, zerbait berezia egiten ahaleginduko gara.

Datorren urtera arte denoi!

**ELGOIBARKO IZARRAko**
**Santa Ageda taldea**

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
PublizrIatea:
r• 943 74 37 04
Faxa. 943 74 37 04

barren topagunea.com
Helbide informatikoa:
wwvdcpagunea.comlbarren
A.C1TPRATZA LEA
'7 ы -C

LAGLINTZAILEA Elgoibarko Udala ZLIZEICARIA Eli Aizpuru Kazūn m Irati Agirreazaklegi, Asier Orbea Puetarrxrex Antaia Erhzia MAKETATZAILEA Iker Dierto ADMINISIZA7JOA Amaia Rodrige,z GERERIZIA Jon Peli Uriguen KOUBORATZAILEAK Ainhoa Lodoso, Nestor Fuenles.Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao. Goton Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostrza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.F. eta Urruzuno AZALEKO EGAERA ZAHARRA Gotzon Garateren INPRiIIATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE OORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOBARKMARRA

*Elgoibarka Udalak, Eusko Jaarlarirzako Kultura Sailak efa Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
elker

1DANOBAT
YAQUIHAS MERP■LuDJIA

GRUPO DANCIIIAT

MARTA

## TXALOAK

.Emakume batek Santa Eskean Etxegiña taidearekin koruan ateratako emakume bakarra txalotu nahi du: "Ana Mari izan zen Santa Eskeko koruko emakume bakarra. Ea hurrengo urtean emakume gehiago animatzen diren", esan digu.

(›Elgoibarko Institutuko DBH leko ikasleek Kirol Patronatua eta bereziki. Ramon Mujika txalotu nahi dituzte Erreala ikustera Anoetara joateko autobusa antolatu eta sarrerak emateagatik. Mila esker.

‹·Emakume bat etorri zaigu BARRENera Kultur Etxe atzeko zubiaren egoera kaskarra salatzeko asmoz: "Zubia konpondu beharrean dagoela iruditzen zait. Dena zuloz beteta dago eta euria egiten duenean, umeak erabat bustitzen dira."





Kalean, etxebizitzetako fatxadetan edo komertzioetan egiten dituzten "pintadak" direla-eta 3 mutiko etorri zaizkigu BARRENera eta honako hau esan digute: "Ez zaigu bidezkoa iruditzen paretak horrela margotzea. Hori errespeto falta da eta horretan dabiltzenei herria txukun mantentzea ere gauza ederra dela esan nahi diegu".




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com helbidera.

# BEREZIAK

## "Haur bakoitza mundu desberdin bat da"

**Ikastola**

Haur bakoitza mundu bat da. Mundu desberdina. "Heziketa berezia" esaten zen haur bereziak zeudela esaten zenean. Gaur egun, haur desberdinen premiak aztertuta, hezkuntza premia bereziak daudela onartzen da, haur bakoitza delako berezia, ez dago zertan bat bestea baino bereziagoa dela kontsideratu". Ikastolan ikasle desberdinei erantzun pedagogiko desberdina ematen zaie. Hezkuntza premia bereziei jokabide koordinatuen bidez erantzuten zaie: trimestre bakoitzean talde bakoitzeko irakasle taldea, pedagogia terapeutikoko irakaslea, psikologoa, ikasketa buruarekin batera, jarraitzen du garapena prozesuan zehar ikasle bakoitzak (4 urtetik 18ra) egokien datorkion hezkuntza jaso dezan.

## "Irakasle guztiak gaude honetan inplikatuta" 141

**Herri Eskola**

Heziketa berezia baino laguntza zerbitzua deitzea hobe deritzogu. Heziketa berezia diogunean aukerak murrizten ditugu, eskoletan gutxiengo bat baita behar hauek dituzten haurrak. Aniztasunaren trataera da lantzen duguna, hau da, behar bereziak dituzten haur guztiak kontutan hartzen ditugu. Batetik haur bereziak daude, oso bideratutako laguntza behar dutenak, alegia. Adibidez, down sindromea dutenak, autistak... Hauez gain, ordea, badaude gainontzeko haurren mailara ailegatzeko zailtasunak dituzten haurrak ere: jarrera edo zikomotrizitate arazoak dituztenak, irakurketan edo matematiketan laguntza behar dutenak, etorkinak...

Arazoaren arabera, ordu batzutan euren beharrei egokitutako laguntza berezia jasotzen dute. Bi irakasle ditugu kasu berezienetarako. Behar izanez gero, klinika auxiliar baten laguntza ere izaten dugu. Horrez gain, ordea, eskola mailan laguntza zerbirzu bat daukagu antolatuta, non irakasle guztiak gauden inplikatuta eta ordu libreak laguntza hau bideratzeko erabiltzen ditugu.

Eusko Jaurlaritzak aniztasunaren trataeraren inguruan ildo oso orokorrak eman zituen. Araudia geureganatu eta eskolara egokitu dugu. Arau hauen arabera, ikasturte hasieran ikasleen behaketa bat egin ostean, beharren zerrenda egin eta urte guztirako plangintza egiten da. Ikasle guztiek garapen maila ahalik eta hoberena lortzea da helburua.

## "Haurreij egunerei autonemeen egitea

Gautena Elkarteak Pilar Ikastetxean duen ikasgela egonkorra Debabarrenean heziketa berezia eskatzen duten 8 eta 16 urte bitarteko ikasleei irtenbide bat emateko sortu da. Une honetan,11 eta 16 urte bitarteko 4 ikasle daude ikasgelan.

ZER DA GAUTENA
Autismoak eta garapenarekin zerikusia duten beste gaitzek jotako haurren guraso gipuzkoarrek sortutako elkartea da. 1978. urtean lanean hasi zirenetik,

## "Keinuen bidez, txarteltxoekin edo sinboloekin komunikatzen dira"



*Erretratuan, ezkerretik hasita, fi Cris*

# 1LA DESBERDINAK?

*Pertsona bakoliza mundu bat dela esan ohi da, zer esanik ez, haur bakoitza. Hori dela eta haur guztiek ezin dute heziketa bera (aso. Batzuk behar eta laguntasun berezio eskatzen dute. Elgoibarko ikastetxeak (Herri Eskola, Elgoibarko Ikostala eta Pilar Ikastetzea) hezkuntza premia berezìel aurre egiteko prestatuta daudela aztertu eta ikusi dugu. Hiru zentroetan eskaintzen dute heziketa berezia. Honez gain, Gautenak (outismook jotako haurren gurasoen elkarte gipuzkoarrak), ikasgela iraunkor bat du Pilar Ikastetxean. Bertan, autismoa eta garopen arazoak dituzten Debabarreneko haurrei behar duten laguntasuna ematen diete.*

## ) bizimodua ahalik eta da helburua"

**Pilar Ikastetxea**

pertsona hauen eta senideen bizikalitatea eta ongizatea bultzatu eta babestea izan da elkartearen helburu nagusia.

**BALIABIDEAK**

Cristina Agirrebetia irakaslea eta Mertxe Garcia monitorea dira ikasgelako arduradunak. Ikasle bakoitzak bete beharreko helburuak aurrera ateratzeko, beraien beharretara egokitutako materiale bereziez aparte, Pilar Ikastetxeko hainbat instalazio erabiltzen dituzte (bideo gela, jangela, gimnasioa...) eta baita inguruan dauden zerbitzu ezberdinak ere; garraioak, denclak...

**HELBURUAK**

Gautenaren filosofia edo helburua ikasleak gizarteratzea da. Dituzten mugak kontutan hartuz, eguneroko bizimoduan egiten diren gauzetan, hau da, jantzi, jan, garbitasuna, erosketa txikiak... ahalik eta autonomoen izatera iritsi daitezela da helburua.

**METODOLOGIA**

Ikasle bakoitzak eguneroko bizitzara moldatzeko behar duen heziketa prozesua banan-banan egiten da, haur bakoitzaren beharren arabera. Beti ere, helburuak funtzionalak eta eskolako zein senideen beharretara egokituak izan behar direla kontutan hartuz.

Bestalde, komunikatzeko sistema alternatiboak erabiltzen dira: keinuen bidez, txarteltxoak, sinboloak... batez ere, ahozko komunikazioa garatzeko duten ikasleekin.

Honako hauek dira, besteak beste, lantzen diren alor edo sailak: komunikazioa, norbere burua zaintzea, etxeko bizimodua, gaitasun sozialak, osasuna eta segurtasuna, lana eta aisialdia...



*ti, Mertxe Garcia monitorea, Araitz, na Agirrebeña hezitzailea eta Josu .*

## ZER DA AUTISMOA

Elkar komunikatzeko eta erlazionatzeko gaitasuna oztopatzen duen arazoa da. Norberaren baitara bilduz eta itxuraz behintzat, kanpoko munduaz desinteresatuz, errealitatearekin harrernanak haustearen fenomeno patologikoa da.

Bizitzaren lehen urteetan azaltzen da. Haurraren inguruarekiko erabateko desinteresa, espazioarekin identifikatzeko arazoak, keinu estereotipatuak, hizkuntz arazoak eta komunikazio-moldagabezia dira fenomeno patologiko honen ezaugarri nabarmenenak. 1.000 haurretatik bati eragiten dio eta garunaren bilakaerarekin erlazionatutako hainbat gaixotasunetan du sorburua. Hala ere, autismoaren sorburua eztabaidagarria da, ezin izan baitira oraindik faktore organikoak eta psikikoak bereiztu.

Adinean aurrera egin ahala, autistek hobera egiten dute. Zoritxarrez, ordea, gutxiengo batek bakarrik lortzen du bizimodu autonomoa egiteko adinako progresioa. Gehiengoak laguntasuna eta zerbitzu berezien beharra izaten du bizi- kalitatea hobetzeko.



# Gestio Eskolak eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute

## Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziaturako lehen zikloa ikasi ahal izango da Elgoibarren

Joan den ostiralean, hilaren lean sinatu zuten Mondragon Unibertsitateko eta Gestio Eskolako arduradunek elkarlanerako hitzarmena. Akordio honen bidez Mondragon Unibertsitateak bere heziketa proiektuak Debabarrenera zabaldu nahi ditu. Honela, Gestio Eskolako instalazioetan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza lizentziaturako lehen zikloa ikasi ahal izango da. Campus berria datorren ikasturtean jarriko da martxan.




*Otsailaren lean Udaleko pleno aretoan sinatu zuten Gestio Eskolako eta Mondragon Unibertsitateko arduradunek elkarlanerako hitzarmena.*

### Zerbitzu soziala

Orain artean Gestio Eskolak enpresa gestioan egin duen heziketa lana aipatzekoa da. Izan ere, zuzendaritza lanetan aritzeko prestatu ditu bere ikasleak, beti ere gizarteari zerbitzua egiteko asmoz. Mondragon Unibertsitatea bat dator heziketa sistema honekin eta hori izan da bi eskolek bat egiteko arrazoietako bat. Bestalde, enpresek, erakunde publikoek eta gizarte entitateek proiektu honetan bat egitea da beraien asmoa.

### Helburuak

Akordioa honen bidez ikasketa hauek egin nahi dituenari aukera ematea eta ikasketak eta lana bateratzea nahi dute. Baita etengabeko heziketa, ikerketa eta garapen zein enpresa promozio zerbitzuak eskaintzea ere.

Hitzarmen honen helburu nagusia gizartea heziketaren bidez garatzea da, baita Debabarreneko garapenean eta modernizazioan eragina izatea ere.

Honela, heziketa sistema bailarako behar sozioekonomikoetara egokituz.

# Altzolako iturria lekuz aldatuko dute etxebizitzen obrak direla-eta

## Iturria, leku berrian, forma eta material beraiekin egingo da

Altzolan etxebizitza berriak eraiki behar dituztela-eta zubiaren parean dagoen iturria lekuz aldatuko dute. Iturriaren hodia uraren burdina-oxidoa medio hondatuta zegoen eta PVC materialeko hodi berri batekin ordezkatu zuten lehenengo. Bestalde, aldapa txikia zegoenez, ura indar gutxirekin ateratzen zen iturritik, eta hori izan da lekuz aldatzeko beste arrazoietako bat. Iturriak leku berrian forma eta material berdinak mantenduko ditu eta lehengo tokitik gertu egongo da, gaur egun dagoen lekutik ezkerretara, garai bateko hotelaren aurreko partean.



*1643. urtean eraikitakoa da iturria*

## Santa Agedako koruek koplai jantzi zituzten kale eta baserriak

### Elgoibarko Izarrako taldekoak 60 baserritan aritu ziren kantari

Kale eta baserri, zapatu eta martitzenean Santa Ageda martiriaren omenez kopla kantari aritu ziren hainbat talde. Zapatu goizean Etxegina taldekoak irten ziren eskean herriko kaleetan eta jasotako dirua oraindik zenbat den ez badakite ere, limosna ematen, koruan kantari zein bestelako laguntza eman zutenak eskertu nahi dituzte. Guztira 45 lagun aritu ziren kantuan eta aurten estreinako aldiz emakume batek hartu du parte koruan. Etxegina taldekoek datorren urterako gonbitea luzatu nahi diete herritar guztiei.



*Etxegiña taldea*

Astearte arratsaldean, batetik Herri Eskolako eta Ikastolako umeak atera ziren kantuan, eta bestetik, Elgoibarko Izarrako taldea baserriz baserri ibili zen. Eguerdiko 14:30ean Plaza Handian atera eta 8 ordu luzez herriko 4 bailaratan aritu ziren koplari. Bi taldetan banatuta 23 lagun Sallobenten, Urruzunon, San Migelen eta San Pedron izan ziren. 60 baserri eta bertako bizilagunak koplatu zituzten Areitio, Meabe, Narbaiza eta Ziarda bertsolariek Arantza eta Ekaitz eta Baltzola anaien trikitixa doinuez lagunduta.

Baserritar zein kaletarrek ongi hartu zituzten koplariak eta ohitura zaharrak berrituz, eurotan zein pezetatan, eskupekoa eman zuten guztiak eskertu nahi dituzte.



*Elgibarko Izarrako taldea*


# ATXMI KARAOKEA




wolubxlamaim
AISIALDI TALDEA

ELGOIBIRKOIZARIA

LAGUNTZAILEAK
Elgoibarko Udara Gipuzkoako Foru aldundia Eusko JaurlaritzE

# Mozorro lehiaketa antolatu dute Gurutze Gorriko Gazteek zapatu gauerako

## Etxeko txikiek karaokean kantatu ahal izango dute arratsaldez Atxutxiamaikarekin

Inauteriak gainean dira. Eguen gizen eta barixaku argalaren ostean, bihar zapatu erregularra, jendeak mozorrotzeko aprobetxatzen duena. Arratsaldez txikitxoen txanda izango da, Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak karaokea eta mozorroen desfilea antolatu du beraientzat. Foruen Plazan izango da saioa. Txikitxoek arratsaldez nahiko gozatu ostean, gainontzekoei pasatuko diete erreleboa. Izan ere, Trakets taldearen dantzaldiaren eta Mauxitxa txarangaren kalejiraren ondoren, Gurutze Gorriko Gazteek antolatutako mozorro lehiaketa izango da. Beraz, disfraz orijinalik prestatuz gem, baduzue aukerarik jende aurrean erakusteko eta agian sariren bat eskuratzeko. Izena eman ez duzuenok bihar, larunbatean, duzue azken aukera, goizez Gurutze Gorriko lokalean. Izena ematerakoan CDa aurkeztu beharko da, ondoren taularatuko den koreografiaren musikarekin.



*Artxiboko irudia*

### MOZORRO LEHIAKETAKO SARIAK

**TALDEKA**

**1.saria:** 200 euro
2. saria: 150 euro
3. saria: 100 euro

**BANAKA**

1.saria: 150 euro
2. saria: 100euro
**Koreografia onena:** 100 euro




7) JOSE /b/41<d
(Txema)

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

URKIDI AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE**
**LAN**
**FISKAL**

Kalamua, 12 ELGOBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

TIIEI 11ARTFORD
ASEGURUAK

## Gobernuak 65 urtetik aurrera ere lan egitea buitzatu nahi du.

# ZER BEGITANTZEN 111111.1 85 URTE EGIN ARREN, LANEAN JARRAITZEM



### JOSE CARLOS RODRIGUEZ

**46 urte, metalurgikoa**

Sekulako astakeria. Jendea gazteago jubilatzeko ahaleginak egiten ari den honetan, erokeria da Gobernuaren neurria. Lehenago jubilatuz gero, bizitzako zati bat disfrutatzeko aukera izango genuke.

### MARIA TERESA USOBIAGA

**79 urte, etxekoandrea**

65 urtera arte lan ein ezkero, nahikua da. Ni bizi guztian neskame moduan ibili naiz lanian eta oin jubilaziva kobratzen dot. Gainera behin jubilautakuan badao zer eina. Majo bizi gera gu.





### JOSE LUIS MALLO

**44 urte, txapista**

Oso gaizki, nire lantegian jendea 60 urterekin jubilatzen da eta nik, ahal izanez gero, 59 urterekin lana utzi eta ongi kobratzea nahi nuke. 60 urte betetzerako nahikoa lan egindakoa izango naiz.

### BEGOÑA ANSOLA

**74 urte, etxekoandrea**

65 urtekin pertsonak nahikoa lan egin du eta erretiroa hartu behar duela uste dut. Baina emakumeok adinez zaharragoak izan arren, Ianean jarraitzen dugu etxean eta ez daukagu jubilaziorik.





### MANUEL DEL PINO

**61 urte, jubilatua**

Gaur egun dauden exijentziekin 65 urtera arte lan egitea oso gogorra da. Ni 60 urterekin jubilatu nintzen. Nire postuan mutil gazte bat sartu da, eta lekua utzi behar zaiela uste dut.

### AGUSTINA FERNANDEZ

**70 urte, etxekoandrea**

Osasunez ongi dauden artean ez zait gaizki iruditzen lanean jarraitzea, baina 65 urte bete eta debila egonez gero, inork ez luke lan egin behar. Beraz, osasun egoera hartu beharko lukete kontuan.



---



*IL URILURRENA*
*2000ko otsailaren 10ean, 81 urte zituela hil zen*
*FELISA ARRIOLA ZUBIAURREren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbateart, hilak 10, eguerdiko 12:30ean.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# nola ALDATU diren gauzak!



**1960.** hamarkada amaierakoa da hemen ikus dezakezuen erretratua. "Casa Torre de Alzola" bezala ezaguna zen etxea, garai batean herriko bilerak edo "concejos de la villa" egiteko erabiltzen zen. Eskudoa gaur ere kontserbatzen da. Gero, Eskola Publikoetako irakasleak, posta administratzaileak, "Telefdnica"-ko arduradunak bizi izan ziren bertan. Etxe aurreko terraza eguzkitsuaren behealdean "Caja de Ahorros Provincial de Guiptizcoa" eta "Correos y tekgrafos" zeuden.

Aurrean ikusten den gurutzea, Elgoibarko San Frantzisko elizatik ekarritakoa zen. Gaur egun, Santa Klarako konbentu aurrean dagoena.



2002ko urtean "Kultur Etxea" bezala ezagutzen dugu herrian eraikuntza hau. I993an, berrikuntzak egin ondoren, ireki zuen Udalak Kultur Etxe moduan erabilpena emateko. Alboko terraza, Merkatu Plaza berriaren eraikuntzaren ondoren bota zuten, 60. hamarkadaren amaieran eta ondorioz, "Correos" eta "Caja de Ahorros Provincial de Guiptizcoa" ere bai. Gaur egun, ez dago etxearen bueltan aparkatzerik, burdinezko kate batzuk baitaude. Lehen, berriz, beste erretratuan ikus daitekeen moduan, etxeko hormaren kontra aparkatzen zituzten autoak,



1111A AGIRREGNIOZKORIA ZUEIZARRETA

*fULIA AGIRREGOMOZKORTA ZUBIZARRETA da erretratuan ikus dezakezuen emakumea. Julia, ILILITA "NARRU" bezala ezagunagoa, Bilbon bizi zen. BARRENeko harpideduna zen eta gure astekariaren irakurle fina. Zoritxarrez, urtarrilaren 18an laga gintuen. ELGOIBARREN GOGOAN ZAITUGUI*

# "HARRO SENT1TZEN NAIZ ETA POZIK NAGO EUSKARA IKASI DUDALAKO"

**ELISA GUTIERREZ**

Duela 12 urte hasi zen Elisa euskara ikasten eta tartean askotan laga eta hasi da euskaltegian. Aurten berriro laga behar izan du euskaltegia, lanez lepo dabilelako. Orain egin beharrekoa "hit-z egin, hitz egin eta hitz egin" omen da. Hori bai, ikasteko asko ralta zaiola badio ere, harro dago euskaraz hitz egitera heldu delako.



**Nongoa zara?** Sevillatik etorri nintzen, nire gurasoekin, bi urte besterik ez nituenean. Elgoibarkoa naiz.

**Zer dela-eta ikasi zenuen euskara?** Gustatu egiten zait. Beti eman izan didate inbidia euskaraz hitz egiten dutenek. Beti esan izan diet gurasoei: "Ni zergatik ez nintzen joan Ikastolara?", baina 4 seme-alaba ginen eta gurasoek nahikoa egin zuten ikastetxe publikora bidalita. Ez dut uste hemen bizitzeko beharrezkoa denik, jende asko dago euskaraz hitzik egiten ez duena. Niri, ordea, gustatu egiten zait.

**Euskaraz bizi al zara?** Ez, eixean ez. Baina mutil laguna Elgoibarkoa da eta ezkonduz gero, giro euskaldunean biziko naiz. Jende nagusiarekin asko hitz egiten dut euskaraz. Ileapaintzailea naiz eta etxez-etxe egiten dut lan. Beraz, jende helduarekin gehiago hitz egiteko aukera izan dut.

**Nork animatu zintuen euskaraz ikastera?** Neuk hartu nuen erabakia. Argi neukan ikastea nahi nuela, baina ez da hain erraza. Zenbat eta adin gehiago izan, zailagoa egiten da euskaltegira joatea: lanetik irten eta egunero bi orduko klaseak astunak egiten zitzaizkidan azkenerako. Denbora da oztopo bakarra.

**Zeuk, animatuko al zenuke norbait?** Bai, goizetan bi ume eramaten ditut ikastetxera eta erdaraz egiten duten emakumeekin topatzen naizenean, beti animatzen ditut. Euskaltegiko lehen urtean gainera, ikaragarri ikasten ari zaren irudipena izaten da eta emozio gehieneko urtea izan ohi da.



## MAISU MRISTREN

i4~4,



**EUSKARAZ BIZI**

"Kalean ere euskaraz egiten saiatu behar zenukete. Ikusten al duzue ETB-ko saiorik?" Horrelakoak esaten dizkiegu maiz gure ikasleei. Azken batean, euskaraz bizitzera bultzatu nahi izaten ditugu, horrek beren ikastprozesuan aurrera egiten lagunduko dielakoan.

Horregatik saiatzen gara telebistako saio, aldizkari eta liburu gomendagarrien berri ematen; horregatik animatzen ditugu ikasleak euskaraz antolatutako ekintzetan parte hartzera.

Egia esan, batzuetan zaila egiten zaigu animatze-lan hori. Izan ere, euskaldunok ere, sarritan axolagabekeriagatik, ahcrlegin bdienik ere ez dugu egiten euskaraz egin, irakurri edo idazteko: gure herrian euskaraz bizitzea ez baita "normalena".

Zorionez, badira euskaraz egiteko aukerak aprobetxatzen dituzten ikasleak, liburu bat irakurriz, abestiak entzunez edo antzerki bat euskaraz ikusiz gozatzen dutenak. Eta horrek poz handia ematen digu.

**JOSE LUIS AZPILLAGA**
**Udal Euskaltegiko irakaslea**



# geloz

## Garbine imaz

AMARREKO TXIKIAN

**Zerk bultzatuto hasi zinen euskara ikasten?**
Beti eduki dut arantza hau. Gure hizkuntza ez galtzeko zabaltzea beharrezkoa dela uste dut.

**Egia al da euskara ikastea zaila dela?**
Inportanteena ilusioa mantentzea da, ilusioarekin gauza guztiak lortzen dira-eta.

**Eta garestia dela?**
Ez, beste edozein ikastaro: tan gehiago ordaindu behar da. Gainera, ordu gubdago dira eta laguntzank ere ez da egoten askotan.

**Zer lortu duzu ikasten hasi zinenetik hona?**
Aditzak hiztegia ikastea eta belcfurra kentzea, batik bat.

**Nola animatuko zenuke jendea euskara ikastera?**
Burua landu erin behar dela esango nieoe, ez diela kalterik egingo-eta, saiatzeko.

**Zure ingurukoek egiten al dizute euskaraz?**
Batzuetan.

**Dakienak egiten ez badu, ez crakienak ikasiko al du?**
Ez, euskara euskaltegietan ikasten da, baina kanpoan hitz egin behar da. Ondoan laguntzeko norbait edukiz gero, hobe.

**Euskara batua edota euskalkia?**
Ikasteko eta idazteko, batua baina kalean, herriko euska ra.

**Elgoibarren beharrezkoa al da euskara jakitea?**
Ni donostiarra naiz, orain Mendaron bizi naiz eta euskara beharrezkoa da Mendaron, Donostian eta Euskal Herriko edozein lekutan.

**Noiz arte jarraltuko duzu ikasten?**
Ezer gertatzen ez bazait behintzat, ikasi arte.




(Erretratuan, ezkerretik eskurnara): Alfonso Eugi, Garbiñe Imaz, Antonio Guerola, Carrnen AkuRa ro. Falta direnak, baina gela honetakoak direnak Inma Gonzalez, Richard Roa eta Vanessa Mateol

## Zure ustez, zer behor du hizkuntzo



**Antonio Guerola**
Dena. Gure seme-alabei hitz egitea zein garrantzitsua den ulertarazi, hizkuntza hori gal ez dadin. Abestiak esaten duen bezala; euskara da euskcfldun egiten gaituena".

## AURREKO LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 7 | | | | | |
| | | 1 | J | A r | KU | | | | |
| T | X | I | S | T | ORRA | | | | |
| 3 | A | R | T | X | AN | | D | A | |
| | | 4 | GAROÑ | | | | | A | |
| 5 | S | ARGOATE | | | | | | | |
| | | | 6 | ADARR | | | | | A |

**EZKERRETIK ESKUMARA**
1. **Nola esaten da Elgoibarren** *zaigu?*
2, **Santo Tomas egunean zer jateko ohitura dago?**
3. **Nora igotzen da Bilboko funikularra?**
4. **Euskal Herritik geduen** dagoen zentral **nuklearra.**
5. **Uziairaren 25ean non egiten da erromeria Elgoibarren.**
6. **Nola esaten da euskaraz "tomar el pelo". (________ jo)**

**GOITIK BEHERA**
7. **Ze idazle** Famatuk dauzka Jose **Irazu izen-abizenak?**



# IRABAZLEA
**ROCIO GUTIERREZ da.**

**Saria:** Bi pertsonarentzat afaria Toletxe tabernan

# elo




Iontse Egaña,
a Pedro Tesou-
Nekane iturbe,

## GELpitlo F1TXR

**Euskaltegia:**
**AEK**
**Irakasiea:**
Monso Eugi
**Urratsa:**
Maila ertaina
**Ikasle kopurua:**
9 ikaste

**Batazbesteko adina:**
30 urte
**Asteko klase orduak:**
10 ordu
**Bitx.ikeriak:**
Bi ikasle mendaroarrak dira eta AEK euskaltegia aukeratu dute euskara tkasteko

**NOR da gelako langileena?** Garbiñe.

**NORI esango zenioke lotsa alde batera uzteko?**

**NORK animatzen du taldea?**

**NOREKIN joango zinateke euskaraz bakarrik hitz egiten den lekuren batera?**

**NORENTZAT izaten dira irakaslearen bronkak?**

**NOREN apunteak kopiatzen dituzue? .,1ontserenak.**

**NORENGATIK ari zarete euskara ikasten?**

**NORA joango zinateke gelan ikasitokoa praktikatzera?**

## iritzi

## )atek bere etorkizuna ziurtatzeko?



**Carmen Acuña**
"Dakitenek kalean erabili behar dute eta ez dakigunok, gehiago saiatu behar dugu. Nahiz eta gutxi dakigun, esan egin behar dugu eta horrela, polikipoliki, lotsa apctrte lagato lortuko dugu euskaraz hitz egitea"

## "IKUSI ETA I<ASI" LE IAKETA

Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, gurutzegrama ondo egitea besterik ez daukazu. Horrela egin ostean,. moztu papera marra etenetik eta bidali honako hellsidera martxoaren 1 o baino lehen. 111 pertsonarenizat afaria irabaz dezakezu, Taletxe tabernan. Elidali erantzunak helbide honetara: Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar, arigera@infonegotio.com Euskara ikasleak euskaltegietan ere enfrega dezakezue.




EZKERRET1K ESKUMARA
1. Nala esaten da elgoibartarrez: Zer egin dezakegu? Zer egin .....
2. Nongoak dira zanpantzarrak?
Otsailaren 3a, zer egun da?
4. Europako basorik handienetakoa da eta Nafarroan dago.
5. Elgoibarko astekariaren izena.
6. Zein da 2001eko bertsolari txcxpekluna?

GO1TIK BEHERA
7. Gipuzkoako herri txiki hau sokatiragatik da ezaguna.

Porte hartzen duzuenon arteon ozketatuko dugui 2 LAGUNENTZAKO AFAR1A

111 **NOTIZIAK**

## MIKEL MARKEZ AEK EUSKALTEGIAN



Euskal Herrikoak diren abestiak euskara ikasleei ezagutarazteko asmoz, Mikel Markez bere gitarra lagun duela, AEK euskaltegian izan dugu urtarrilaren 28 eta 30ean "kanta herrikoien kastaroa" ematen.
Abestien inguruko azalpenak entzun ondoren, ikasle eta irakasleok aukera paregabea izan dugu kantuokin abestu eta gozatzeko.
AEK euskaltegiak eskerrak eman nahi dizkio Udaleko Euskara Batzordeari, ikastaroa antolatzeko eman digun laguntzagatik.

## UDAL EUSKALTEGIKO JOSE ANTONIO GOMEZEK IRABAZI ZUEN ELKARTASUN DENDAKO SARIA



Udal Euskaltegiko ikasleek Elkartasun Dendaren berri jakiteko, Gemma Agirregomezkortarekin hizketalditxo bat egin zuten abenduan. Dakizuenez, Gemma Peruko Cusco herrirako dirua biltzen ari da. Zenbait ikasiek Misqui taldeak antolatutako zozketako txartelak erosi zituen bisitalditxo hartan eta nola suertatuko eta, Jose Antoniori lehen sariaren zenbakia tokatu zitzaion. A ze nolako zortea izan duenl

## WEB-GUNE INTERESGARRIAK

Euskara ikasten ari direnentzat edota euskara maila hobetu nahi dutenentzat hiru web-gune interesgarriri buruzko informazioa duzue jarraian:

www.habe.org
- Chat-a: euskaraz chateatzeko aukera eskaintzen du web gune honek.
- Euskara ikaslearen gunea: Euskara hobetzen (Esaera eta esapideak, Euskaltzaindiaren azken arauak eta euskara hobetzeko oharrak), denbora-pasak, txisteak...hiztegiak.
- Arau eta azalpenak: Euskaltzaindiaren arauak eta hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta azalpenak.
- Informazioa: albisteak e.a.

**www.argia.comizerbitzuak**
Beste gauza askoren artean, on line dauden HIZTEGI guztiak aurki daitezke web-gune honetan.

**EGAren atariko probak egiteko programak:**
http:/go.to/atariko
www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/ega/index.php

# arigera ren go

## BERBA LAGUNA EGITASMORAKO, ARIGERAK PRESTATU DUEN IKASTURTERAKO PLANA

OTSAILA: mendi irteera
MARTXOA: sagardotegia
APIRILA: txikiteoa
MAIATZA: irteera
EKAINA: bazkari edo afaria

Nahiz eta ikasleak gehien estimatzan duen jarduera tertuliak izan, hauek bere bidea jarraitzen dute eta ARIGERAk bestelako ekintza batzuk prestatu ditu. Urtarrilean antolatutako txikiteoak ez zuen arrakastarik izan, baina ea hemendik aurrera jende gehiago animatzen den.

Bestalde, orain arte, ARIGERAK beheko urratsetan dauden ikasleentzat ezer antolatu ez badu ere, beraientzako plangintza bat prestatzen ari da, euskara ikasten motibatuta jarrai dezaten.

# Farmazia okindegia

| EGUN EZ | GAUEZ |
|---|---|
| 9 Etxeberria (Sanla Ana kalean) | Zabaleta |
| 10 Zabaleta | Zabaleta |
| 11 Rosario | Rosario |
| 1 2 Ibañez | Ibañez |
| 1 3 Bidasolo | Bidasoo |
| 1 4 Etxeberria (Sanlo Ana kalean) | Etxeberria |
| 1 5 Fernandez | Fernandez |

**FARMAZIAK**
IBAÑEZ, Rekalde, i Soraluze.
Tel: 943 75 T6 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza,
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze,
943 75 13 84
*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**
10 igandea Doña Mercedes

## EuskoTren TREma

DONOSTIA-BELBO
Egunero
Dortostia .131AR;, 5.45 00.45... 20.-15
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
jaiegunetan7 45ean hasikn dira eta orduerc epngo dira

BLLBO-DONOSTIA
Egunero
Bitho 06:00 7.00... 20.00
Elgoihar 07.23 08.23... 21.23
• ialegunetan H.Onetan ha.siko dira eta orkero egongo dira

## Eusko Tren AUTOB1AK

MENDALLO-ELGOTBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGODBAJR-MENDARO
Astegunetan
Elgothar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jalegunetan
Elgolar 08.25 09.25 10 25... 21 25

## PESOAUTOBUSAK

LARUNBAT GAUA

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 00 30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoihar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00 50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00 55 | 02.55 | 0-i,55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05 05 | 07.05 |

ONDARROA-EEBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoihar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetaka informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.*

## 1 IIVTERESEKO TELEFONORK 41123

| OSASUNA | |
|---|---|
| Larrialdiak | 112 |
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anhulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| GIG (Gazte Informazio Gunea) | 943 74 14 61 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Ki roldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Nlintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea | 943 74 35 72 |
| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |
| **IKASTETXEAK** | |
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I IVI.H | 943 74 41 32 |
| Institutua | |
| Arreitu rre | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (bileka) | 943 74 80 19 |
| I kastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |
| **KOMUN1KABIDEAK** | |
